

EUSKAL HERRIKO MUGAK oinez

66 etapa
7 herrialdeetako perimetrotik

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	10
• ITSASOA MUGA	17
1- BAIONA - LAFITENEA	18
2- LAFITENEA - HENDAIA	22
3- HONDARRIBIA - PASAI DONIBANE	25
4- PASAI SAN PEDRO - DONOSTIA	28
5- DONOSTIA - ZARAUTZ	30
6- ZARAUTZ - DEBA	34
7- DEBA - LEKEITIO	37
8- LEKEITIO - ELANTXOBE	40
9- ELANTXOBE - GERNIKA - LUMO	43
10- GERNIKA - LUMO - BERMEO	47
11- BERMEO - BAKIO	50
12- BAKIO - GORLIZ	53
13- PLENTZIA - PORTUGALETE	55
14- PORTUGALETE - KOBARON	59
• MENDEBALDEKO MUGA	63
15- KOBARON - TURTZIOZ	64
16- BASINAGRE (TURTZIOZ) - POZALAGUA	68
17- RANERO - LANESTOSA	71
18- LANESTOSA - TORNOS MENDATEA	74
19- TORNOS MENDATEA - BALMASEDA	77
20- BALMASEDA - SANTA KOLOMA	80
21- SANTA KOLOMA - AÑES	82
22- AÑES - AGIÑAGA	85
23- AGIÑAGA - URDUÑAKO MENDATEA	89
24- URDUÑAKO MENDATEA - ASTÚLEZ	91
25- ASTÚLEZ - HORCA MENDATEA	94
26- HORCA MENDATEA - HERRÁN	98
27- HERRÁN - TOBILLAS	102
28- TOBILLAS - GURENDES	105
29- GURENDES - SOBRÓN	119
30- OMECILLO IBAIA - ZANBRANA	111
• HEGOALDEKO MUGA	115
31- ZANBRANA - BASTIDA (SAN GINES)	116
32- SAN GINES - SAMANIEGO	118

33- SAMANIEGO - ELTZIEGO	121
34- ELTZIEGO - OION	124
35- OION - LEGARDAKO ERMITA	128
36- LEGARDAKO ERMITA - LODOSA	131
37- LODOSA - SAN ADRIÁN	135
38- SAN ADRIÁN - RINCÓN DE SOTO	137
39- RINCÓN DE SOTO - CASTEJÓN	140
40- CASTEJÓN - PIEDRALOBOS	142
41- PIEDRALOBOS - MOJÓN DE LOS TRES REYES	145
42- MOJÓN DE LOS TRES REYES - MALÓN	149
43- MALÓN - CORTES	152
• EKIALDEKO MUGA	155
44- CORTES - ANTZO ABARKA	156
45- ANTZO ABARKA - SANTA MARGARITA MENDATEA	159
46- SANTA MARGARITA MENDATEA - NA-534 ERREPIDEA (ZARRAKAZTELU)	163
47- FIGAROL - GABARDERAL	168
48- GABARDERAL - LEIRE	171
49- PETILLA ARAGOIKO ITZULIA	174
50- LEIRE - GAZTELUBERRI	177
51- LA TEJERIA - BURGI	180
52- BURGI - FAGO	183
53- PUIETAKO MENDATEA - ABAUKO ATERPEA	187
54- ABAUKO ATERPETXEA - ARGIBIELAKO MENDATEA	190
55- ARGIBIELAKO MENDATEA - LINZAKO ATERPETXEA	193
56- LINZAKO ATERPETXEA - HIRU ERREGEEN MAHAIA-LASKUN	197
57- LASKUN - ERNAZ (SAN MARTINGO HARRIA)	204
58- ERNAZKO LEPOA - URDATX/SANTA GRAZI	207
59- URDATX/SANTA GRAZI - IZARBE - D-632 ERREPIDEA	208
60- D-632 ERREPIDEA - URDABÜRÜKO LEPOA - D-918	212
61- D-918 ERREPIDEA - ESKIULA	214
• IPARRALDEKO MUGA	217
62- ESKIULA - MITIKILE	218
63- MITIKILE - OZARAIN	221
64- OZARAIN - BIDAXUNE	223
65- BIDAXUNE - AHURTI	227
66- AHURTI - BAIONA	231

Euskal Herriko perimetro geografikoa zenbakitan	237
---	-----


HITZAURREA

Euskal Herriko perimetroa oinez egin izana aipatzean, Goierriko Mendizale Beteranoak (GMB) taldeak 2012 eta 2018 bitartean Euskal Herriak Bizkaiko Golkoarekin, Kantabriarekin, Burgosekin, Errioxarekin, Aragoirekin (Zaragoza eta Huesca) eta Bearn eta Landekin dituen mugetatik egindako zeharkaldiak aipatu nahi ditugu. Ibilbide horiei esker, eta falta ziren zatiak osatzeko azken urteotan espreski egindako txangoei esker, muga osoaren ibilaldia segidan egin ez dugun arren, perimetro osoaren ibilbidea eskain dezakegu.


Ibilaldiak ondorengo ordena honetan datoz: Baionatik mendebalderantz abiatu eta euskal kostalde osoa egin ostean, Bizkaiko mendebaldeko mugak egin, Arabakoak, Nafarroa Garaikoak, Zuberoa eta Nafarroa Beherearen eta Bearn arteko mugak eta Lapurdi eta Landen artekoak, Baionara itzuli aurretik. Ahal izan den guztietan, bide balizatuetatik jo dugu. Hala, guztiak egin ahala, Euskal Herriko bira osatuko dugu.

Ondorengo orrialdeotan, etapa horien guztien berri emango dugu, datu teknikoak ere aipatuz (distantziak, igarotako denborak, igoera metatuak eta jaitsiera metatuak). Amaieren eta abiapuntuen arteko tarte txikien jakingarriak erantsi ditugu. Mapak eta trackak ere ez dira falta, ibilbideari behar bezala jarraitu ahal izateko.

Beraz, horra hor gure gonbita eta gure erronka. Orain euskal mendizaleen txanda da. Euskal Herria ezagutu, gure herriaz gozatu eta... ondo ibili!



66 etapa
7 herrialdeetako
perimetrotik



Lapurdiko kosta Bizkaiko Golkoaren ertzean agertzen da, lurmuturrez eta hondartzez beterik. Aturri ibaitik Hendaiaraino luzatzen da eta Gipuzkoakoarekin edo Bizkaikoarekin alderatuta askoz ere lauagoa da. Barrako hondartza Angeluko hamaika hondartzetako bat da, txikiena. Kostalde horretan sortu zen surf euro-parra. Itsasbazterreko xendra izeneko bideari jarraituko diogu.

Ibilbidea eta denborak:

Etaparen hasiera: Angeluko Barra hondartza, Aturriko bokalean.

Etaparen bukaera: Lafiteneko hondartzaren ondoko aparkalekua.

Denbora: 4 h eta 55 min.

Luzera: 22 km.

Desnibela: igoeratan: 415 m; jaitsieratan: 430 m.

Zailtasuna: Erraza.

> 1 Aturriko bokaleko kaiaren jarraipenean dauden horma luzeek, beren arkuekin, zubi-egitura dute, eta nonbait, alboetan urari bere bidea uzteko eginkizuna. Bokaleko hormen alboan bertan hasten da gure ibilaldia, **Barrako hondartzan** (7 m). Urrunean Larhun eta Aiako Harria ikusten dira. Hormigoizko bide zabala dago dunen gainean eta alboak hesituak ditu.

Itsasaldetik ezpondak ditu. Ezpondetan eta lurraren aldetik, berriz, bera baino hondoratuago dauden zelaiak. Ezpondetan eta alboetan dunetako landak daude. Ortzi-mugan gero eta hobeto nabari dira Gipuzkoako eta Bizkaiko mendi batzuk.

Hondartza bakarra dirudi baina zeharka zatituta dago tarteka. Horietako bati Maitasun-ohatzea deitzen diote. Noizbehinka terrazak eta bankuak daude. Biarritzera bidean, golf-zelaiak ere badira. Golf-zelaiaren amaieran, zaldiko-maldikoak, komunak... dauden plazara iritsiko gara. Gero gure bidea San Martin lurmuturrean sartuko da.

> 2 **San Martin lurmuturra** (4,6 km; 1 h).

Angeluko kostan 4 km inguru egin ondoren, Biarritzera igotzen da labarretan gorako bidea eta Mac Croskeyren hiribidera irten. Enperatriz hiribidetik jarraituko dugu. Hiriaren erdigunerantz jaistean, eskuinaldean, itsasertzean, Hotel du Palais handia dago. Parean ortodoxoen eliza zaharra ikusiko dugu. Ondoren, gure bidea Eduardo VII. hiribidearekin eta ezkerraldeko Viktoria erreginarenekin elkartzen da.



Zaldunen hondartza, Angeluko hondartzetako bat.

Ozeanora jaitsita, Biarritzeko Miramar hondartza handiko pasealekura eta lora-tegietara irteten da gure bidea. Udal Kasinotik (6,8 km; 1 h 15 min) igaro eta arrantzale-portu zaharrera iritsiko gara. Bere talaiaren atzean hondartzatxo bat dago. Lurmutur txikiko oinezkoentzako tunela zeharkatu eta Andre Mariaren hiribidea hartu behar dugu. Harkaitz zulatu baten gainean Ama Birjinaren irudia dago.

> 3 **Ama Birjinaren irudia** (8,1 km; 1 h 50 min).


Itsaslabarraren ondotik aurrera jarraituz, Galesko printzearen hiribidetik Euskaldunen Kostako hondartzaren ondotik igaroko gara. Galesko printzearen hiribidean Euskaldunen Kostako hondartzara jaisteko eskailerak daude.

> **Euskaldunen Kostako hondartzara jaisteko eskailerak** (40 m; 10,7 km; 2 h 25 min).

Eskaileratetik goiko muinora igoko gara Andre Mariaren hiribidean jarraitzeko. Marbella (2 h 35 min) eta Milady (2 h 40 min) hondartzen albotik Ilbarritzekora iritsiko gara.

> 4 **Ilbarritzeko hondartza** (12,1 km; 2 h 45 min).

Hondartzak segidan egon arren, uraren mailak ez du beti tarterik uzten oinez pasatzeko. Beraz, muinoetan gora eta behera ibili behar izaten da askotan. Ilbarritzeko hiribidetik hondartza ondora jaitsita, Lakuaren hiribidetik jarraituko dugu muino gainerantz, eta ondoren, kanpina dagoen hondartzaxora jaitsiko



Itsasalderako jaitsiera.

gara. Bidartera doan D-911 errepidera heldu (2 h 55 min) eta berriro itsasaldera hartuko dugu, Errege Pabiloia hondartzaraino.

> **Erretegiko hondartza** (15,1 km; 3 h 25 min).

Bidarteko Erretegiko hondartzaren albotik pasatu eta Madalenako kapera edo ermita aldera egingo dugu.

> **Madalenako kapera** (16 km; 3 h 40 min).

Ermitaren ondotik igarota, Uhabia errekatxoa gainditu eta izen bereko hondartza zeharkatuko dugu.

> **5 Uhabiako hondartza** (17,6 km; 4 h 5 min).

Hondartzatik muinoan gora egin eta itsasertzeko errepidean zeharkaldia egin da San Josepeko kaperara iritsiko gara.

> **6 San Josepeko kapera** (4 h 15 min).

Ermitatik Parlamentuko hondartzara jaitsiko gara. Hareatzaren amaieran Getariako portutxo zaharra aurkituko dugu (4 h 20 min). Portu aldea igarotakoan, ereinotz basotik muinoan gora egingo dugu. Trenbidearen ondora irten eta, mendixka baten gainera igota, kanpinaren ondotik igaro eta Zenitz hondartzara jaitsiko gara (4 h 40 min). Apur bat igo, ostera jaitsi eta ur zikineta araztegiaren albotik pasa ondoren, muinoan gora egin eta Maiarko hondartzara helduko gara.

> **7 Bertatik gorantz segi eta, Akotz hondartza izeneko kanpinaren ondotik** (4 h 45 min), errepidez, Donibaneko Lohizuneko iparreko hondartzaren (**Lafiteña**) ondoko biribilgunean edo aparkalekuan bukatuko dugu (22 km; 4 h 55 min).

Lapurdiko hondartzetatik hasi eta, itsasbazterreko bidezidor edo xendratik, garai bateko Donibane Lohizuneko lapurtar kortsarioen eta Zokoko baleontzien portuetatik barrena, Txingudiko badiaraino zabaltzen da ibilbide hau.

Ibilbidea eta denborak:

Etaparen hasiera: Lafiteneko aparkalekua, Donibane Lohizunetik 5 km-ra dago.	Luzera: 22 km.
Etaparen bukaera: Hendaia.	Desnibela: igoeratan: 380 m; jaitsieratan: 445 m.
Denbora: 5 h.	Zailtasuna: Erraza

> **1 Lafitene**tik Akotzeko hondartzarantz hartuz gero, bertan surfari asko ikusiko ditugu. Errepide txiki batetik jaitsi ondoren mazelako bidezidorretik jarraitu behar dugu. Aurrean Donibane Lohizuneko etxeak eta txaletak, eskuinaldean Akotzeko hondartza, aurrean Aiako Harria eta ezkerrean Larhun ikusten dira. Errepidean aurrera Erromardiko hondartzara helduko gara.

> **2 Erromardiko hondartza** (1,9 km).

Bi ertzetako labarren inguruan harri asko ditu. Erdi-erdian heliportu txiki bat ere ikusten da, baita Artxiloko gurutzera 800 m daudela dioen kartela ere. Kanpinetaraino daraman errepide txikitik ibilita Artxiloko gurutzera iritsiko gara.

> **3 Artxiloko gurutzea** (2,8 km; 40 min).

Santa Barbararantz jarraituz, pasagune batean pentagono antzeko harri-eraketa bitxia ikusten da itsasertzean. Nobillero karrikaren bidegurutzera iritsita, eskuin aldera egin eta gaintxo batean San Josepen kapera dago, bertan Firmin Van Bree mezenasaren kriptak dago.

> **4 Van Breeren kriptak** (50 min).

Handik Santa Barbara lurmuturrerantz jarraitu behar dugu. Lurmuturraren gainean kapera edo ermita zuri bat dago.

> **5 Santa Barbara lurmuturra** (4,5 km; 1 h).

Bertatik ikusgai dira Donibane Lohizune, Ziburu, Zokoa, badia eta hondartzak. Donibaneko hondartzako pasealekura jaitsita, Rochers-en pasealekuan zehar segi eta, badia inguratuz, Kasino parera iristean Thibaud pasealekua igaro eta Errege-alabaren eta Claudet Julieneren karriketara irtegarra. Portua inguratu eta Urdazuri ibaia zeharkatu behar dugu De Gaulle zubitik. Zubiaren beste aldean



Ziburu dugu zain, Maurice Ravel karrika. Itsasaldeko bidea hartuta Donibaneko portua dago.

> **Donibaneko portua** (6 km; 1 h 20 min).

Itsasargiaren dorrea eta Urdazuri ibaiaren bokalea bistan direla, muino txiki baten gainean Muskoako Ama Birjinaren irudia ikusiko dugu. Ziburuk eta Urruñak gobernatzen omen duten Zokoa auzoan sartuta, badia inguratzen jarraitu, Untxin erreka zeharkatu, Passicot etorbideetik segi eta portura helduko gara.

> **Portua**, arrantzaleen auzoa (9 km; 1 h 55 min).

Portutik aurrera segitzen badugu, Zokoako gaztelua bisita dezakegu.

> **6 Zokoko gaztelua** (15 m; 9,5 km; 2 h 5 min).

Portua babesteko eraiki omen zuten 1627an. Kontrako noranzkoan arrantzaleen auzoa zeharkatu, eta Jules Ferry eskola frantsesaren parean (Frantziako lehen ministro zela eskola errepublikar frantziararen eredu ezarri zuen Ipar Euskal Herrian) aldapan gora jo eta militarrek kudeatzen duten itsasargi-dorrea iritsiko gara.

> **Zokoko itsasargi-dorrea** (10,2 km; 2 h 35 min).

Itsasalderago, arrantzaleentzako itsasargi txikiagoa (semaforoa) dago talaiaren ertzean. Labarren gaineko belarditik Hendaia doan erlaintzeko errepidearen ondora atera eta haren ertzetik segituko dugu. Batzuetan jaitsi eta beste batzuetan igo, kilometro bat edo ibilita, errepide-bidegurutzera topatuko dugu, Urruñaren. Hurbil, gain batean, alemaniarren hormigoizko bunker bat dago, II. Mundu Gerran eraikia. Harlauza zabal izugarriak, etxaldea, baserriak, txaletak eta Aiako



Zokoko gaztelua eta itsasargia. Atzean, Aiako Harria.

harria, Jaizkibel nahiz Higer lurmuturra dira bistan. Hondartza harritsu batetik goiko erlaitzera harriak igotzeko kableak eta tresneria dago.

> **7 Asporosttipiko erlaitza** (40 m; 12,7 km; 3 h).

Belar eta sastraka artean bidezidorretik jarraitu eta kala batean Haizabia hotela eta Euskal Arrain Haztegia daude. Loiako kalaren parean harkaitz bakartia dago eta, bera inguratu ostean, apur bat aurrerago, Abadiaren eremuan sartuko gara.

> **8 Abadia gaztelua** (4 h 5 min).

Abadiaren eremuko belardien eta lursailen artean, goialdean, gaztelua dago. Bideak zerbait hurbildu arren, gero urrundu egin gaitu lurmuturreko begirato-kietarantz.

> **9 Dunbarrietako begiratokia** (4 h 15 min).

Bidetik itsasertzerantz jarraituta, alemaniarrek II. Mundu Gerran eraikitako bi gotorlekuren albotik pasatuko gara. Aparteko ikuspegiak gozatuko gara, Jaizkibel nahiz Higerko lurmuturra bistan direla. Dunbarriak itsasoan daude, eta begirato-kiak bide ertzean. Gero, Hondarraitz hondartzara jaitsiko gara.

> **10 Hondarraitz hondartza** (19,4 km; 4 h 35 min).

Hondarraitz hondartzatik Hondarribia eta Higerko lurmuturra ederki ikusten dira. Itsas bulegoaren zehar jarraitu eta kasinoaren eta gainerako eraikinen paretik pasatu ondoren, Mimos etorbidean segituko dugu. Hendaia kaira iritsi eta Sokoburuko kirol-porturaino joango gara.

> **11 Sokoburuko kirol-portuan** bukatzen da ibilbidea (22 km; 5 h).

Hor bi aukera daude: nahi bada, oinez 6 kilometro ibilita, Hondarribiraino joan daiteke; bestela, kirol-portuko kaian pasaia zerbitzuan dabiltzan txalupetako batean Bidasoa zeharkatu eta Hondarribira igaro.



HONDARRIBIA - PASAI DONIBANE

Europak babestutako eremuan barrena, ibilbide hau Talaia bidetik eta Jaizkibelgo tontor-lerrotik doa. Itsasertzeko aukerak eskaintzen ditu eta luzeagoa eta politagoa da. Besteak beste, Labetxuko koloreen badia, Gaztarrozko muturra, Akerregiko pitzadura, Azabaratzako senaia eta Grankantoko gunek ikusteko aukera ematen du.

Ibilbidea eta denborak:

Etaparen hasiera: Hondarribia.

Etaparen bukaera: Pasai Donibane.

Denbora: 5 h eta 50 min.

Luzera: 23 km.

Desnibela: igoeratan: 995 m; jaitsieratan: 975 m.

Zailtasuna: Ertaina.

> **1 Hondarribiko portu berria** (6 m).

Larhun bistan dela, Higer lurmuturrerantz doan errepedeko lehenengo biragunean eskuin aldera hartu eta erromatarren garaiko Oiassoko Asturiagako ainguralekua ekialdean dela, errotuluek ondo markatutako oin-bidetik, San Telmo

